

RTS28 – Birtransmisio Txostena

**Aginduen birtransmisioan erabilitako
finantza-bitartekariei eta haien
betearazpenen kalitateari buruzko
txostena**

2021ko EKITALDIA

2022ko APIRILAREN 27a

1. SARRERA

Baloreen merkatua erregulatzen duen araudiak —2017/576 Erregelamendu Delegatua (EB), Batzordearena, 2016ko ekainaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duena inbertsio-enpresek betearazpen-zentroen nortasunari buruzko eta betearazpenaren kalitateari buruzko informazioa urtero argitaratzeko erregulazio-arau teknikoak dagokienez (hemendik aurrera, “**Erregelamendu Delegatua**” edo “**RTS28**”)— bezeroaren babesari eta gardentasunari dagokienez eskatzen dituen helburuak betetzeko.

Balore eta Merkatuen Europako Agintaritzak ezartzen duenez, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresek argitaratu egingo dute beren bezeroen aginduak birtransmititzeko erabili dituzten bost betearazpen nagusien nortasuna, negoziazio-bolumenaren arabera sailkatuak, eta hori finantza-tresnen kategoria bakoitzeko, baita erakunde betearazpenen kalitateari dagokienez lortutako informazioa ere.

Argitaratu beharreko informazioa bi zatitan argitaratzen da:

1. *Betearazpen Onenari buruzko txostena*: 2017/576 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 3. artikuluko 1. eta 2. atalei jarraikiz eskatutako informazioa.
2. *Aginduen Betearazpenaren Azterketa eta Ondorioak*: 2017/576 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 3. artikuluko 3. atalari jarraikiz eskatutako informazioa.

Finantza-tresna jakin batzuetarako, enpresa bat betearazlea edo birtransmititzailea izan daiteke, edota bi gauzak aldi berean. ESMAREN ustez, aginduak betearazi eta transmititzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresek bi txosten bereizi eman behar dituzte zerbitzu horiei dagokienez. Garrantzitsua da txosten horiek desberdinak izatea, inbertsio-enpresek betearazpen-zentro onenen berri eman dezaten, eta, bestetik, garrantziko aldi berean bezeroen aginduak betearazteko erakunde nagusien (bitartekariak) berri.

Aginduen birtransmisioan erabilitako betearazpen-bitartekariei eta haien betearazpenen kalitateari buruzko txostena – Birtransmisio Txostena izeneko txosten hau egiterakoan finantza-tresna bakoitzaren izaera hartu da kontuan, CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO (hemendik aurrera, “**Laboral kutxa**”) erakundeak bere bezeroen aginduak berriz transmititzeko erabilitako negoziazio-zentro nagusien gaineko laburpen bat emateko. Nolanahi ere, finantza-tresna mota batzuek edo guztiek informazioa partekatzen dutenean lotura estuei, gatazkei edo titulartasun komunari dagokienez, edota ordainketa, itzulketa eta onurei buruzko informazioari dagokienez, informazioa modu kontsolidatuan aurkeztu da.

Jarraian aurkeztuko dugun txostenean, tresna jakin batzuei buruzko informazioa xehatu da, hain zuzen ere, bere bezero txikizkari eta profesionalen aginduak hirugarrenei berriz transmititzeko Laboral Kutxaren jomugan dauden tresnei buruzko informazioa, eta beraz, Laboral Kutxaren zerbitzu horren eraginpean ez dauden gainerako tresna guztiak txosten honetatik kanpo geratu dira.

Erregelamendu Delegatuak eskatutako informazioa jaso da dokumentu honetan. Laboral Kutxak makinaz irakurtzeko moduko formatu elektronikoa batean argitaratzen du, eta nahi duenak deskarga dezake Erakundearen webgunearen bitartez (www.laboralkutxa.com).

2. ERRENTA ALDAKORRA

2.1 AKZIOAK ETA ETFak

Negoiazio-bolumenari dagokionez, bere bezeroen aginduak betearazteko Laboral Kutxak baliatu dituen betearazpen-zentro nagusiei buruzko informazioa.

Aginduak transmititzen dituen bitartekariak bezero motaren arabera betearazpen-estrategiak bereizten ez dituzenez, bezero txikizkariari eta bezero profesionalari buruzko informazioa modu agregatuan erakutsiko dizuegu jarraian tresna-kategoria honetarako.

TRESNA KATEGORIA		Akzioak eta ETFak			
Adierazi aurreko urtean, batez beste, eguneko < 1 agindu betearazi zen	EZ				
Betearazpen-zentro nagusiak negoiazio-bolumenaren arabera saillkatuta (beheranzko ordena)	Kategoria honetan guztira negoziatutako bolumenaren proportzioa (%)	Kategoria honetan guztira betearazitako aginduen proportzioa (%)	Agindu pasiboen ehunekoa	Agindu agresiboen ehunekoa (%)	Agindu gidatuen ehunekoa (%)
NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES SA	100,0	100,0	29,09	70,91	100,00

3. ERRENTA ALDAKORREKO TITULUEN GAINEKO DERIBATUAK

3.1 WARRANTak

Negoiazio-bolumenari dagokionez, bere bezeroen aginduak betearazteko Laboral Kutxak baliatu dituen betearazpen-zentro nagusiei buruzko informazioa.

Aginduak transmititzen dituen bitartekariak betearazpen-estrategiak bereizten ez dituzenez bezero motaren arabera, bezero txikizkariari eta bezero profesionalari buruzko informazioa modu agregatuan erakutsiko dizuegu jarraian tresna-kategoria honetarako.

TRESNA KATEGORIA		Warrantak			
Adierazi aurreko urtean, batez beste, eguneko < 1 agindu betearazi zen	BAI				
Betearazpen-zentro nagusiak negoiazio-bolumenaren arabera saillkatuta (beheranzko ordena)	Kategoria honetan guztira negoziatutako bolumenaren proportzioa (%)	Kategoria honetan guztira betearazitako aginduen proportzioa (%)	Agindu pasiboen ehunekoa (%)	Agindu agresiboen ehunekoa (%)	Agindu gidatuen ehunekoa (%)
NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES SA	100,0	100,0	100,00	0,00	100,00

4. 2021ko EKITALDIAN AGINDUAK BETEARAZTEKO ERABILI DIREN FINANTZA-BITARTEKARIEN ESKUTIK LORTUTAKO BETEARAZPENEN KALITATEARI DAGOKIONEZ LABORAL KUTXAK EGINDAKO AZTERKETAREN ETA LORTUTAKO ONDORIOEN LABURPENA

Jarraian, erabilitako bitartekarian lortutako betearazpen-kalitatearen ebaluazioa jaso da, bitartekari horren bitartez lortutako betearazpenaren kalitatea ebaluatzeko erabili diren betearazpen-tresna eta betearazpen-estrategiak argitzeko.

Informazio hori modu agregatuan eskaintzen da eraginpeko finantza-tresna guztietarako, aztertutako faktore eta zirkunstantziak guztientzat berdinak direla aintzat hartuta.

4.1 FAKTOREEN GARRANTZI ERLATIBOA

Finantza-bitartekari bat hautatzerakoan esku hartzen duen faktore nagusia Eragiketaren Kontraprestazio Osoa da (hemendik aurrera, "EKO"), eta beraz, arrazoizko beste aukera batzuen aldean bezeroarentzat zuzenean edo zeharka EKO txikiena sorrarazten duen bitartekaria hautatuko du Laboral Kutxak.

Xede horietarako, EKOaren barruan finantza-tresnaren prezioa eta betearazpenarekin lotutako kostuak hartzen dira, aginduaren betearazpenari lotuta egonik bezeroak bere gain hartu dituen gastu guztiak barne, hala nola betearazpen-zentroaren tasak, konpentsazio- eta likidazio-tasak eta aginduaren betearazpenean inplikaturako hirugarrenei ordaindutako beste tasa batzuk.

Laboral Kutxak betearazpen oneneko faktore gisa kontuan hartutako faktore osagarriak honako hauek dira:

1. Likidezia
2. Betearazpen Probabilitatea
3. Aginduaren bolumena
4. Aginduaren izaera

4.2 AGINDUEN BETEARAZPENA DESBERDINA DA BEZEROEN KATEGORIZAZIOAREN ARABERA ENPRESAK BEZEROAK KATEGORIEN ARABERA BEREIZTEN DITUENEAN, ETA HORREK AGINDUEN BETEARAZPEN MODALITATEETAN IZAN DEZAKE ERAGINA. HORRI GUZTIARI BURUZKO AZALPENA

TRESNA MOTA	ERRENTA ALDAKORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES SA	Norbolsak ez ditu betearazpen-estrategiak bereizten bezero motaren arabera.

4.3 BEZERO TXIKIZKARIEN AGINDUAK BETEARAZTEAN BEREHALAKO KOSTU ETA PREZIOEN IRIZPIDEEN GAINETIK BESTE IRIZPIDE BATZUK LEHENETSI OTE DIREN AZALTZEA, ETA IRIZPIDE HORIEK BEZEROARENTZAKO ZENBATEKO OSORIK ONENA LORTZEKO ERABAKIGARRIAK IZATEAREN ARRAZOIA AZALTZEA.

Bezero txikizkariantzat, Kontraprestazio Osoaren irizpidea baino ez da kontuan hartu.

4.4 IZAN LITEZKEEN LOTURA ESTUAK, INTERES-GATAZKAK ETA JABE BERAREN JABETZAK

TRESNA MOTA	ERRENTA ALDAKORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES SA	Une honetan Laboral Kutxa akzioduna da Norbolsa Sociedad de Valores SAren kapital sozialaren % 5ean.

4.5 EGINDAKO EDO JASOTAKO ORDAINKETEI, DESKONTUEI, MURRIZKETEI EDO ONURA EZ-MONETARIOEI BURUZKO AKORDIO ESPEZIFIKOAK

TRESNA MOTA	ERRENTA ALDAKORRA
BETEARAZPEN-ZENTROA	DESKRIBAPENA
NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES SA	Berretsi dugunez, aldez aurretik aipatutako betearazpen-zentroarekin ez da inolako akordio espezifikorik ezarri deskontuei, murrizketei edo onura ez-monetarioei dagokienez

4.6 FINANTZA-BITARTEKARIAREN HAUTAKETA ALDATZEA

2017ko ekitaldian lortutako emaitzen ondorioz Laboral Kutxak ez du inolako aldaketarik egin behar izan bere Betearazpen Oneneko Politikan jasotako finantza-bitartekariaren hautaketan. Hortaz, ez da bidezkoa aldi zehar finantza-bitartekarietan izandako altak eta bajak aurrekoarekin lotzea.

4.7 LABORAL KUTXAK BETEARAZPEN-KALITATEARI BURUZKO EDOZEIN DATU EDO TRESNA NOLA ERABILI DUEN AZALTZEA, 2017/575 ERREGELAMENDU DELEGATUARI (EB) JARRAIKIZ ARGITARATUTAKO DATU GUZTIAK BARNE.

Merkatuetako betearazpenaren kalitatea aztertzeko, Norbolsa Sociedad de Valores SAK argitaratutako informazioa hartu dugu aintzat, kontziente izanik Norbolsak merkatuko erakunde liderrak baino ez dituela kontuan hartu, besteak beste honako aldagai hauek aintzat hartuz: merkatuan presentzia handia duten taldeetako kide izatea, eskaintako zerbitzuak eta zerbitzuen kalitatea, auditoria-txostenak, etab. Eta bitartekotza-industrian ospe handia lortu izana.

Brokerrak hautatzerakoan eskatu da, halaber, negoziazio-zentroen estaldura zabala maila globalean, eta, horrez gain, baliabide teknikoek ahalik eta segurtasunik eta azkartasunik handiena bermatzea aginduak transmititzeko kate osoan, eragiketen betearazpenetik likidaziora bitarte.

Laboral Kutxaren ustez, Norbolsa da balore-aginduak transmititzeko finantza-bitartekaririk onena, kontuan hartzen badugu egiaztatu egiten dutela hautatutako brokerrek baliatzen dituzten azken betearazpen-zentroak direla transmititutako aginduei dagozkien baloreen likidezia kontzentratzen ari direnak, transmititzen ari zaizkien aginduetarako betearazpenik onena bilatzen dutela bermatzeko. Negoziazio-zentroen likidezia monitorizatzen dute negoziazio-zentroek argitaratzen dituzten aldizkako txostenei jarraikiz.

4.8 LABORAL KUTXAK, 2014/65/EB ZUZENTARAUAREN 65. ARTIKULUA BETEZ
EZARRITAKO INFORMAZIO KONTOLIDATUKO HORNITZAILE BATEN INFORMAZIOA
NOLA ERABILI DUEN AZALTZEA .

Informazio Kontsolidatuko Hornitzaile baten informaziorik ez da erabili.

LABORAL KUTXA